

2019/2020

www.laiaeskola.eus



LAIA eskola

Arabako emakumeon jabeakuntzarako eta
berdintasunerako eskola

GORBEIALDEKO
KUADRILLA



▶ Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
▶

LAI Aeskola Gorbeialdea

INFORMAZIOA, KONTAKTUA
ETA IZEN-EMATEAK

Gorbeialdeko Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua:

☎ 945 43 01 67

✉ berdintasuna@gorbeialdea.eus

📍 Udaletxe enparantza, 1. 01130 Murgia, Araba

www <https://www.gorbeialdekokuadrilla.eus/eu/index.html>

Inskripzioa daukaten jardueren izen-emate epea: ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte.

Hautzaindegi eta garraio zerbitzua: ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte.

Eguneratuta egon zaitezten, eman izena **hileroko buletin digitalean** web orriaren bidez! Ekintza, baliabide, gaurkotasan zein berritasunen inguruko informazioa jasoko duzu.



@LaiAeskola



@LaiAeskola #LAI AeskolaGorbeialdea



www.laiAeskola.eus



Arratzua-Ubarrundia



Ayuntamiento de LEGUTIO
LEGUTIOKO Udala



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala



Zuiako Udala
Ayuntamiento de Zuia

LAI Aeskolako Idazkaritza teknikoak: Berdintasun proiektuak, S. Coop.
Diseinua eta Maketazioa: La Debacke
L.G.: VI-769/2019



Eduki hau Creative Commons Aitortu – BerdinPartekatu (by-sa) lizentziapean dago, lanaren eta bertatik eratorritako lanen erabilera komertziala ahalbidetzen du, jatorrizkoaren lizentzia bera erabiliz.

Aurkibidea

LAI Aeskola Gorbeialdea	5
Gorbeialdeko Kuadrillaren Berdintasun Zerbitzuaren aurkezpena	6
Gobernu ona: 2019-2020ko lanaren ardatz nagusia	7
Gorbeialdeko mugimendu feminista eta LAI Aeskolaren markoaren baitako sinergiak	8
LAI Aeskola programaren aurkezpena eta Irantzu Varelaen "Feminazi se nace" bakarriketa	9
Irakurle-Klub Feminista euskaraz	10
"Ordu bioleta" Irakurle-Klub Feminista gaztelaniaz	11
Beldur Barik Gunea	12
Haur ipuin kontalaria	13
Rap feminista lantegia "La Basu" abeslariarekin	14
Jostailu ez-sexisten sorkuntzarako lantegia	15
Amelia Tiganusekin Solasean: "Prostituzioa emakumeen kontrako indarkeria gisa"	16
Antzerki motzak: "Sofocos" eta "Levántate y mea de pie"	17
"Burutik jota", Psico Woman	18
Elkarteek antolatutako ekintzak	19



LAI Aeskola Gorbeialdea

Gorbeialdeko LAIAeskolarako gonbita luzatzen dizuegu.

LAI Aeskola, Arabako emakumeon jabekuntzarako eta berdintasunerako eskola, Arabako lurralde osoan zehar hedatzen da kuadrilla guztietara helduz, baita Trebiñuko Enklabera ere.

Hogeiak gora eskolez osatutako Euskal Autonomi Erkidegoko jabekuntza eskolen sareko kide da, estrategiak eta helburuak modu berezi batean partekatuz, LAIAeskolaren irismena udalerrri bakar batetik baino askoz haratago doa.

Lurralde anitz baten errealitatera moldatzeko apustuak eskola malgu, ireki eta dinamiko bat eskatzen du, eragile politiko, tekniko zein elkarten parte-hartzeari esker modu kolektiboan eraikia.

Azken finean, LAIAeskolak kuadrillen, udalerrien, erakunde sozialen, mugimendu feministaren, emakumeen kolektibo zein elkarten lana biltzen du, gure gizartea justuagoa, berdinzaleagoa eta indarkeriarik gabeta izan dadin.

Ondoko orrietan topatuko duzue Gorbeialdeko programazioa. Gorputzetik eta gogamenetik ekin eta formatzeko lantegiak; hausnarketak partekatu eta ideiak elkartrukatzeko inspirazio diren zinea, antzerkia edo literatura; gure begirada zabaldu eta gure ikuspegi propioa partekatzeko solasaldiak, topaketak eta ikasteko jardunaldiak.

Gu ezagutzeko gonbitea luzatzen dizugu, eskuartean *laia* hau hartu eta bertan parte har dezazun, elkarrekin batera parekidea ez den gizarte bidegabe eta baztertzaille honi eusten dioten oinarri eta oztopoak iraultzeko. Soilik horrela landatu, ernamuindu eta hazi ahalko gara berdintasunean.

Ongi etorri!!



Gorbeialdeko Kuadrillaren Berdintasun Zerbitzuaren aurkezpena

Gorbeialdeko Kuadrillaren Berdintasun Zerbitzua 2016. urte amaieran sortu zen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna Araban sustatzeko helburuarekin eta indarkeria matxistaren eta bere forma oroien aurka borroka egiteko. Zerbitzu horren bidez, Aramaio, Arratzua-Ubarrundia, Legutio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuiako udalerrien artean politika berdinzaleak koordinatu eta garatzen dira.

Gure lana udalerrri barneko kudeaketara zuzenduta daude, genero-*mainstreaming*a deitua, baina herritarrei ere, emakumeei bereziki. Zerbitzu honetan udalerrietako politika publikoetan genero ikuspegia txertatzeko lan egiten dugu (araudia, diru-laguntzak, hitzarmenak, aurrekontuak, planifikazioa, hizkuntza ez-sexista...), berdintasunaren aldeko ekintzen garapenaren sustatuko duten diru-laguntzak kudeatzen ditugu eta gure lana Kuadrilla-estrategia baten baitan gidatuko duten ikerketak, protokoloak eta planak gauzatzen ditugu.

Horrez gain, emakumeen jabeakuntza indibiduala eta kolektiboaren aldeko ekintzak martxan jartzen ditugu. Emakumeen elkarte-mugimenduak eta mugimendu feminista sustatzen ditugu, eta era beran, Gorbeialdeko elkarten sare osoan zehar ikuspegi anitz eta berdinzale bat sustatzen dugu. Ikastetxeak, gune soziokulturalak, liburutegiak, gaztelekuak zein ludotekak tresna eta baliabideez hornitzen ditugu. Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako eta sentsibilizaziorako ekintzak zuzentzen ditugu, giza eskubideen ikuspuntutik.

Gobernu ona: 2019-2020ko lanaren ardatz nagusia

Pasa den maiatzaren 14an egindako Kuadrillako Bazarrean *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako I. Plana (2019-2022)* onartu zen, maila tekniko, politiko zein sozialean gauzatutako prozesu luze baten fruitu.

Planak lau lan-ardatz ditu: gobernu ona, emakumeen jabetasuna, bizitzaren jasangarritasuna eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak giza-eskubideen ikuspuntutik.

Indarrean dagoen lehen urte honetan lehenengo ardatzean ahalegin osoa jarri nahi da, hots, gobernu ona edo genero mainstreaming delakoa. Horretarako, eragile politiko eta teknikoekin formakuntza ekintza zehatzak egingo dira, kontratazio eta diru-laguntzetan berdintasun klausulak ezarri, kontziliazioa sustatu, sexua bereizten duten informazioa jasotzeko ekintzak garatu, estatistikak eta ikerketak sexu-aldagaia jasotzen dutela bermatu, eta berdintasuna beste arloetan zeharkako proiektu bilaka dadin lan eginez.

Lan hori 2019ko azken hiruhilekoan gauzatzea aurreikusten dugu, hala, 2020an kuadrillako udalerrri batean ordenantza aitzindari bat aurrera eramateko beharrezko baldintzak izateko.

Gorbeialdeko mugimendu feminista eta LAIAeskolaren markoaren baitako sinergiak

Gorbeialdeko mugimendu feminista kuadrillako berdintasun politiken planifikaziorako, garapenerako eta ebaluaziorako gako da eta hala izaten

jarraitu behar du. Gorbeialdean zorte handia dugu Aramaio, Urkabustaiz, Zigoitia eta Zuian talde feministak izateaz, aldaketa sozial eta politiko bat bideragarri egin dutenak. Haiei esker, mugarri garrantzitsuenak gauzatu dira, hala nola, martxoak 8ko edo azaroak 25eko egunak, Zuiako jaialdi feminista, Zigoitiako Jardunaldi feministak, eta bultzada hori datozen urteetara ere ekartzea beharrezkotzat jotzen dugu.

Berdintasun Zerbitzuaren helburua 2017an hasitako prozesuei jarraipena ematea da, Gorbeialdea feminista baten alde borrokan jarraitzeko indarrak batuz, maila ezberdinetan. Udalerrri eta espazio ezberdinetan sor daitezkeen talde feministak bultzatu nahi ditugu eta haiekin elkarlanean aritu. Horrela, denon artean sinergiak egituratu, ekimen feminista indartsuago eta bateratuagoak lortzeko. Gorbeialdearentzat epe luzeko lan garrantzitsua da hau.



LAI Aeskola programaren aurkezpena eta Irantzu Varela-ren “Feminazi se nace” bakarrizketa

Zigoitiako IV. Jardunaldi Feministak

Zigoitiako **IV. Jardunaldi Feministen** markoan 2019-2020 kurtsorako LAIA eskolaren programazioa aurkeztuko da. Irantzu Varela-k jarraituko du, “Feminazi se nace” bakarrizketarekin, azterketa kritiko bat bizitzan zehar inposatzen zaizkigun aginduei “behar bezalako emakume bilaka gaitzen”.

Dinamizatzailea: **Irantzu Varela**, kazetaria eta euskal militante feminista, Faktoria Lilaren koordinatzailea eta sortzailetako bat eta El Tornillo saioko sortzailea eta aurkezlea

Data eta ordua: **2019ko urriaren 3a**
osteguna 19:00etatik 21:00etara

Tokia: Zigoitiako Kultur Etxea

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Zigoitiako Udala
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Kolaboratzailea: Zigoitiako Berdintasun taldea

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

Irakurle-Klub

Feminista euskaraz

Literatura ona partekatu eta gozatuko dugu, eta bide batez, feminismoaren historia ezagutzeko begirada zabaldu. Izan ere, eleberriek eta iritzi artikuluek inspirazioa eta pentsamendua pizten digute jabekuntzarako bidean, literaturan adituek koordinatzen dituztenean.

Hilean behin batuko gara irakurgaiak partekatzeko, eta hala erabakiz gero, inguruko herrien artean txandaka eginez. Herri batean hasi eta izena ematen duzuen emakumeen arabera Kuadrillako herri ezberdinetan hurrengo saioak egiten segituko dugu. Elkar ezagutzeko eta hurbiltzeko modu bat.

- Koordinatzailea:** **Ainhoa Aldazábal Gallastegui**, euskal filologoa, literatura feministan aditua eta Skolastika taldeko kidea
-
- Data eta ordua:** AURKEZPENA:
2019ko urriaren 14a
astelehena 18:00etatik 20:00etara
Hileko bigarren
astelehenetan, ordu berean
-
- Tokia:** Emakunderen autobusa (kiroldegi aurrean), Aramaio
-
- Norentzat:** Emakumeak
-
- Hizkuntza:** Euskara
-
- Antolatzaileak:** Arabako Foru Aldundia
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Aramaioko Udala
-
- Kolaboratzaileak:** Emakunde
Gorbeialdeko Udalak
-
- Informazio +:** Lehenengo saiora hurbiltzen diren emakumeekin erabakiko da ondorengo saioen lekua. Izen-ematea irailaren 9tik aurrera, berdintasuna@gorbeialdea.eus helbidean

“Ordu bioleta” Irakurle-Klub Feminista gaztelaniaz

Irakurle Klub Feminista topaketa, hausnarketa eta ez-tabaidarako espazio bat da, non adin, formakuntza, maila, lanbide, bizimodu... ezberdinetako emakumeak batzen garen feminismoaz hitz egiteko.

Eleberriak, saiakerak, iritzi artikulua, poesia... irakurriko dugu eta liburu eta edukiri buruzko norberaren iritzia besteenarekin osatuko dugu.

Esperientziak partekatzeko eta feminismoaz ikasteko baliagarria ere izango zaigu. Klub hau jabekuntzarako eta norbera aberasteko benetako espazioa da guretzat.

Eta are gehiago, ondo baino hobeto pasatzen dugu.

Koordinatzailea: **Begoña Etayo Ereña**, genero berdintasunean eta garapenerako lankidetzan aditua. María de Maeztu Forum Feministako kidea

Data eta ordua: AURKEZPENA:
2019ko urriaren 28a
astelehena Zuiako Udaletxeko areto nagusian
**Hileko laugarren
astelehenean, ordu berean**

Tokia: Lehenengo saiora hurbiltzen diren emakumeekin erabakiko da ondorengo saioen lekua

Norentzat: Emakumeak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Arabako Foru Aldundia
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Kolaboratzailea: Gorbeialdeko Udalak

Beldur Barik Gunea



Jai testuinguruan eraso sexistak prebenitzeko eta informatzeko espazioa. Bertan informazioa, triptikoak, txapak egiteko aukera, pegatinak, eta bestelako materiala aurkituko duzu, eta nola ez, horrelako egoerei aurre egiteko tresnak zeureganatu ahal izango dituzu.

Eraso sexistarik gabeko jai batzuen alde!!

Dinamizatzailea: **Beldur Barik**, EAEko erakundeek sustatutako programa bat da, gazteen artean indarkeria matxistari aurre egiteko

Data eta ordua: 2019ko irailaren 14a larunbata 00:00etatik 03:00etara, Legutio	2019ko irailaren 28a larunbata 00:00etatik 03:00etara, Murgia
---	---

Tokia: Jai eremuetan

Norentzat: Herritarrak, eta bereziki gazteak

Hizkuntza: Elebiduna

Antolatzaileak: Legutioko Udala Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua	Zuiako Udala Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
---	---

Kolaboratzaileak: Arabako Foru Aldundia Legutioko Jai Batzordea	Arabako Foru Aldundia Murgiako Batzorde Administratiboa
---	--

Informazio +: www.laiaeskola.eus

Haur ipuin kontalaria

Zigoitiako IV. Jardunaldi Feministen baitan

Dinamizatzailea: “Zazpi neska ausarta”
ALARA

Data eta ordua: **2019ko urriaren 11a**
ostirala 18:00etatik 19:00etara

Tokia: Liburutegia. Zigoitiako Kultur Zentroa

Norentzat: 10 urtetik beherakoentzat

Hizkuntza: Euskara

Antolatzaileak: Zigoitiako Udala
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Kolaboratzailea: Zigoitiako Berdintasun taldea

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

Rap feminista lantegia “La Basu” abeslariarekin

Lantegi honen bidez, rapa eta Beldur Barik jarrera jabe-kuntza feministarako tresna gisa hartuta, eragiten ditugun eta normalizat barningarrituta ditugun mekanismo sexistak identifikatu nahi ditugu, hala haien inguruan hausnartu ahal izateko, ikuspegi feminista batetik gure egoera zein den ikusteko. Honela, raparen bidez, erraza, askatzailea eta doakoa den zentsura eta formalismorik gabeko adierazpen modu bat ezagutu ahal dugu. Errealitatea guretzat osasungarria den bestelako adierazpide bilakatuz.

Formatzailea: **Elena Caballero**, “La Basu”
izenarekin ezagunagoa, rap erreferentea
Estatuan

Data eta ordua: **2019ko urriaren 18a**
ostirala 18:00etatik 20:00etara

Tokia: Emakunderen autobusa (Kultur Etxearen
aurrean), Zigoitia

Norentzat: Nerabeak

Hizkuntza: Euskara

Antolatzaileak: Zigoitiako Udala
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Kolaboratzailea: Emakunde

Informazio +: Zigoitiako Kultur Etxean
945 43 01 67
berdintasuna@gorbeialdea.eus

Jostailu ez-sexisten sorkuntzarako lantegia

Familia-lantegia jostailu ez sexistak sortzeko material berrerabiliekin. Parte hartze eta sormen lantegia familian ikuspegi hezkidetzailleaz.

Dinamizatzailea: **Orbela Natur Heziketa elkarte**

Data eta ordua: **2019ko urriak 19a**
larunbata 10:00etatik 14:00etara

Tokia: Urkabustaizko Kultur Etxea, Izarra

Norentzat: Familiak

Hizkuntza: Euskara

Antolatzaileak: Urkabustaizko Udala
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Informazio +: www.laiaeskola.eus
945 43 01 67
berdintasuna@gorbeialdea.eus

Amelia Tiganusekin Solasean: “Prostituzioa emakumeen kontrako indarkeria gisa”

Amelia Tiganus, emakumezkoen salerosketatik bizirik ateratakoa, ikuspuntu abolizionistatik prostituzioaren eztabaida mahaigaineratuko du, sexu- eta giza-eskubideen esplotazioa helburu duen salerosketa.

Hizlaria: **Amelia Tiganus**, ekintzaile feminista, feminicidio.net atariko koordinatzailea eta EHUko Berdintasun Masterreko irakaslea

Data eta ordua: **2019ko azaroaren 14a**
osteguna 18:30etik 20:30era

Tokia: Zuiako Udaletxeko areto nagusia

Norentzat: Herritarrak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Zuiako Udala
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

Antzerki motzak: “Sofocos” eta “Levántate y mea de pie”



Sofocos: Betina Sagrario Campoamorri ez dio tren bakar batek ere alde egiten, behar izanez gero, Ez Usteko geltokiak atzerapenak sortzen ditu. Bere adinean, menopausiaren nahasteak hormonen jaia izango balira bezala bizi egiten ditu, eta dantza egitera bultzatu egiten dio sumendi bat bailitzan.

Levántate y mea de pie: Emakume batez zutik txiza egi-tea ez da soilik errebeldia ekimen bat. Osasungarria eta higienikoa da eta oso lagungarria da jai giroko likidoak hustu behar dituzunean.

Dinamizatzailea: **Detritus Teatrus**
(antzerki konpainia)

Data eta ordua: **2019ko azaroaren 17an**
igandea 18:30ean

Tokia: Urkabustaizko Kultur Etxea, Izarra

Norentzat: Helduak

Hizkuntza: Gaztelaniaz

Antolatzaileak: Urkabustaizko udala
Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

Kolaboratzailea: Arabako Foru Aldundia

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

“Burutik jota”, Psico Woman



Psico Woman YouTubera heldu da patriarkatua erraietatik suntsitzera.

Feminismoak hamaika modutan aldarrika dezake: idatziz, dantzatuz, oihukatuz, konferentziak emanez, abestuz, *performanceak* edota lantegiak eginez, emakume taldeak sortuz, autodefentsa praktikatuz, bazterretatik, *perreatuz*, emakume, gizon, trans, galdera ikurra izanik...

Hau, nire forma da.

Ongi etorria denoi #TODALOCA-ra.

Dinamizatzailea: **Isa Duque-Psico Woman**,
psikologoa, sexologoa eta *youtuberra*

Data eta ordua: **2020ko urtarrilaren 10a**
ostirala 19:00etatik 21:00etara

Tokia: Legutioko Kultur Etxeko areto nagusia

Norentzat: Herritarrak, batez ere emakumeak eta nerabeak

Hizkuntza: Gaztelania

Antolatzaileak: Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua
Arabako Foru Aldundia

Kolaboratzailea: Legutioko Udala

Informazio +: Sarrera librea lekua bete arte

Elkarteek antolatutako ekintzak

Kuadrilletako eta Arabako hainbat elkarteek ekintzak antolatzen dituzte urtean zehar LAIA eskolaren markoaren baitan. Ekintza hauek guztiak www.laiaeskola.eus web orrian argitaratuko dira, baita buletin digitaletan eta Kuadrillako ohiko komunikabideetan.

- **Duranako Emakume Eskolak** zineforum saio ezberdinak antolatuko ditu, non genero berdintasunaren gaiari lotutako alderdi ezberdinak jorratuko diren, moderatzaile baten gidaritzapean.
- **Manuel Iradier Elkarte Afrikanistaren** eskutik “Afrikako Emakumeen Borroka” solasaldia antolatuko da, emakume afrikarrei buruz ditugun estereotipoak suntsitzeko eta gizarteko arlo guztietan beraien protagonismoa ikusgarri egiteko.



